

maitatu, ikasi, ari...

# ESKALAYARI

*aek*  
**17. korrika**

TREBIÑU-DONOSTIA  
2011ko apirilaren 7tik 17ra

**12-18 URTE**  
**UNITATE DIDAKTIKOA**

# SARRERA OROKORRA

## HELBURUA

Euskararen erabilera sustatzea eta indartzea. Helburu berarekin lanean diharduen AEK-k antolatutako Korrika ekimenaren zergatiak eta beharraz ohartzea.

## IRAUPENA

Korrika 17 apirilaren 7an Trebiñun hasi eta apirilaren 17an Donostian bukatuko da. Korrika kanpainak bi asteko iraupena izango du. Betiere, irakasleen esku geratuko da kanpaina bete-betean jarraitzea edo egun gutxiagotan burutzea.

## PROZEDURA

Bi asteko proposamena da hau, baina ez da ahaztu behar malgutasun osoa dagoela unitatea erabiltzeko garaian, jarduerak solteak baitira. Horrela, beraz, zuen gustura antola dezakezue lanketa.

Jarduera bakoitza garatzeko zenbat egun edo saio erabili jakiteko gomendioa ere bertan duzue.

Proposatzen diren jarduerak ez dira soilik Euskara arloan egiteko. Euskararen normalizazioa edozein jakintza-arlotako irakasleen ardura ere badenez, ikastetxeko irakasle eta gainerako hezitzaileen esku-hartzea oso garrantzizkoa izango da helburuak lortzeko garaian.

## EGITURA

Unitatea adinaren arabera antolatuta dago. Adin-tarte bakoitzari egokia zaion lanketa proposatzen da.

- Haur Hezkuntza (Hegoaldean) eta Ama Eskolan (Iparraldean) lantzekoa.
- 6-8-urtekoekin lantzekoa.
- 8-10 urtekoekin lantzekoa.
- 10-12 urtekoekin lantzekoa.
- 12-18 urtekoekin lantzekoa.

Jarduera batzuk **\*garatutako jarduera** gisa izendatuta daude. Jarduera horien prozesua urratsez urrats deskribatu eta garatzen da. Ezinbestekoa da, beraz, jarduera bideratzen hasi aurretik zehaztutakoak ezagutzea.

**Kidetze-plana:** plangintza honek

ikasle helduak eta gazteagoak kidetzeko proposamena egiten digu. Ikasle helduenak gaztetxoengana joango dira ipuina lantzerako. Ipuina kontatzeko garaian, hain zuzen, ikasle helduagoak ipuin-kontalari eta antzezle bilakatuko ditugu.

## Kidetzearen helburuak

honako hauek dira:

- Elkarrekintzaren bitartez ikasle txiki eta nagusien euskararen erabilera eragitea.
- Ikastetxearen hizkuntz normalizazioan ikasle nagusiak subjektu aktiboak izatea eta ez hartzaile pasibo huts, horretarako protagonismoa bultzatuz. -Ikasleek ardurak eta konpromisoak har ditzaten bultzatzea.
- Ekintza honen bidez motibazioa indartzea, batez ere, ikasle nagusiekin.
- Ikasle nagusiekin ahozotasunaren lanketan jardutea. Kontuan hartu unitatea adinen arabera banatu dugula, baina asmoa ez

dela, inondik inora, bakoitza bere jardunean ibiltzea besteenaz ohartu barik. Zilegi da ekintza elkarrekin egitea; kidetzea da horren adibide bat. Amaiera-ekitaldian zein sarrera-irteeretan antola daitezkeen ekintza osagarri guztiak, beraz, ikastetxe osoari zuzendutakoak izan daitezkeen ahalegintza komeni da.

## EGILETZA ETA KOORDINAZIOA

Kristina Boan (Euskal Herriko Ikastolak)

## ESKER BEREZIAK

Emilio Etxabe, Labiaga Ikastolako HHko irakasle eta haurrak, Arantza Zugazagasti eta Maider Legarreta.

## DISEINUA

Di-da kooperatiba elkarteak.

# IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

## ZER DA IRAKASLEAK UNITATE DIDAKTIKOAN AURKI DEZAKEENA?

### SARRERA-GIDA

Atal honetan lanerako proposatutako material guztiaren aurkezpena egiten zaio irakasleari: lanaren helburu orokorrak, jarduerak, iraupena, lanerako prozedurak eta antolaketa egitura.

### ETAPAREN BEREZITASUNEN ARABERA ZIKLOKAKO PROPOSAMENA

Etapako berezitasunak kontuan hartuta, ziklokako planteamendua proposatzen zaio irakasleari, adin tarteari dagozkion

jarduera esanguratsuenak hautatuz. Beraz, eguneroko lanaren osagarri dela azpimarratu nahi genuke.

- Etaparen berezitasunen arabera ziklokako proposamena. Etapako berezitasunak kontuan hartuta, ziklokako planteamendua proposatzen zaio irakasleari, adin tarteari dagozkion jarduera esanguratsuenak hautatuz. Beraz, eguneroko lanaren osagarri dela azpimarratu nahi genuke. Ziklo bakoitzean egitura berbera jarraitzen da: lehenik, **lan-eskema** aurkezten da inplikatzeko duen jarduerarekin lotura eginez. Eskemak ziklo horretarako

proposatutako lanaren berri ematen du: jarduerak eta hauen helburu zehatzak, jardueren deskribapena eta denboralizazioa. Bigarrenik, **jarduera** guztiak aurkitzen ahal dira. Jarduera hauetan ez da soilik tutorea edota hizkuntza irakaslea inplikatu nahi, beste diziplina arloak lantzen dituztenak ere parte-hartzailerik bihurtu nahi ditugu, besteak beste, Gizarte Zientzietako irakaslea (ibilbidea lantzen denean), Plastikako irakaslea (lekukoa edota petoa egiteko garaian), informatikako irakaslea, musika irakaslea...

**HAUR HEZKUNTZARI** dagokionez, **ipuina** bilakatzen dugu ardatz. Baina jarduna emankorra suertu dakigun, ipuina lantzeko baliatzen ditugun estrategiak (metodologia) izango dira gakoa. Hots, ezin ditugu jarri umeak pasiboki ipuina entzuten, ipuinaren dramatizazioaren bitartez ipuinaren protagonista bihurtu behar ditugu eta gure lana ulermen eta elkarrizketara bideratu. Ipuinak berak hausnarketarako aukera eskaintzen du: etorkin euskaldunak, hizkuntza galdu eta berrartu dutenak,...

# IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

Hala ere, ez da hausnarketarik lortuko ikasleek ipuina entzun-ikus hutsarekin, ezinbestekoa da gaia galdera itxien bidez bideratzea. Irakasleak materiala ezagutu eta berak bideratuko duen hausnarketarako gakoak bilatu beharko lituzke.

**LEHEN HEZKUNTZARI** dagokionez, ziklo bakoitzeko hainbat jarduera giltzarri proposatzen da.

-Lehen zikloan (6-8) esaterako, oraindik **ipuetik eratorritako jarduerak** izango dira nagusi. Jarduera hauen bitartez, umeak hizketan jarriko ditugu, deskribapenak egiten, elkarrizketak bideratzen... Ipuinaren kontaketa laguntzeko koloreztatutako ilustrazioak erabiliko dira.

- Bigarren zikloan (8-10) ipuinarekin lanean jarraituko dute ikasleek, **ipuinaren ilustrazioak egiten eta ipuinaren piktogramak** egiten jarriko baititugu. Beraz, sintesirako eta deskribapenerako gaitasuna lantzeko aukera izango dugu.

- Hirugarren zikloan (10-12) ipuinaren kontaketerako kidetze plangintza estrategia sustatu nahi genuke. Ikasle helduak eta gazteagoak kidezeko ahalegina egiten da ikasle helduenak ipuin-kontalari eta antzezle bihurtuz. Era berean, ikaslearen adina kontuan hartuta, ikaslearen atxikimendua sustatu nahi da euskararen erabilereko **konpromisoa** hartzera bultzatuz.

**Ziklo hauetan guztietan bada errepikatzen den ariketa bat: korrika 17ren ibilbidea.** Jarduera honetan ibilbidea jarraitzearekin batera, mapa mutua aurkezten da eguneroko prentsak gaiari buruz jorratzen duena biltzeko asmoz. Ipuinak berak hausnarketarako aukera eskaintzen du: hizkuntza ohitura aldatu dutenak, hizkuntza galdu eta berrartu dutenak,... Baina adin tarte honetan ere, ez da hausnarketarik lortuko ikasleek ipuina entzun-ikus hutsarekin, ezinbestekoa da gaia galdera itxien bidez bideratzea. Irakasleak materiala ezagutu eta berak bideratuko duen hausnarketarako gakoak bilatu beharko lituzke.

**BIGARREN HEZKUNTZARI DAGOKIONEZ**, aurreko zikloan bezalaxe, oraingoan ere ikasle helduenak arituko zaizkigu ipuin-kontalari eta antzezle. Horretarako **kidetze estrategia baliatuko dugu. Ikus honen deskribapena sarrera orokorra deituriko atalean.** Gainera, unitate honetan, nerabeak teknologia berrietara zein ikus-entzunezkoetara hurbilduko ditugu, hauek ere euskaraz landu daitezkeela ohar daitezen.

# IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

## ETAPA GUZTIETAN ERREPIKATZEN DIREN JARDUERAK

Etapa guztietan errepikatzen diren jarduerak hauek dira:

- **Kanta eta mezua.** Korrika kanpaina kokatzeko eta girotzeko erabiliko dira.
- **Ipuina.** Hezkuntza etapa bakoitzak ipuina lantzeko garaian bere berezitasuna izango du.
- Era berean, **Korrika Txikia** ekimena indartu egin nahi da, eskola barruan egindako lana kanporatzeko eta euskararen aldeko elkartasuna adierazteko aukera ematen digulako. Jarduera honen animaziorako Pirritx eta Porrotxek Korrika 15erako sortutako KORRIKA kanta erabiltzeaz gain, 13 urteko Maider Legarretak sortu duena baliatzea komeni da.

Azkenik, aipatu progresioa erakutsi nahi izan dela jardueren antolaketan. Egun batzuetara, datuak esku artean dituztela, lau lagun inguruko taldeetan.

# IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

JARDUERA ZENBAKIA	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
<b>1.MEZUA</b>	Korrika 17ren girotze-lana eta aurkezpena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mezua ahots gora irakurri.</li> <li>- Bideoklipa ikusi</li> <li>- <a href="http://www.korrika.org">www.korrika.org</a> helbidean sartu.</li> <li>- Sarrera/irteera orduetan, bazkalorduetan eta jolasaldietan bozgorailuetatik Korrika 17ren leloa eta abestia jarri.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mezuaren irakurketa, bideoklipa ikustea eta web gunean sartzea edizio honetako lehen egunean burutuko da.</li> <li>- Korrikak irauten duen bitartean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gelako tutorea edo arloko irakaslea.</li> </ul>
<b>2.BLOGA</b>	Teknologia eta euskara uztartuz, euskaraz modan dauden blogarien sare sozialak ezagutaraztea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldeka galderari erantzuna eman.</li> <li>- Bigarren saioan, eztabaida burutu eta bideoz grabatu.</li> <li>- Ikastetxeko blogera emaitza igo.</li> <li>- <a href="http://www.korrika.org">www.korrika.org</a> helbidearekin lotura egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera hau hiru saiotan antolatuko dugu: lehen saioan, taldeka galderari erantzuna eman; bigarren saioan, eztabaida burutu eta bideoz grabatu; eta azken saioan, ikastetxeko blogera emaitza igo eta beste geletako eztabaidak ikuskatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntza arloko irakaslearekin burutuko dira lehen bi saioak. Azkeneko, blogaren erabiltzaile generikoaren laguntza beharko dugu.</li> </ul>

# IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

JARDUERA ZENBAKIA	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
<b>3.EUSKALAKLIP</b>	Ikus-entzunezkoen sorkuntzari lekua egitea	- Korrika 17ren leloa, Maitatu, ikasi, ari... euskalakari*, erabiliz, gehienez 3 minutuko iraupena duen bideoa grabatu.	- Apirilaren 16a baino lehen.	- Musika arloko eta informatika arloko irakasleak.
<b>4.KOMUNIKABIDEETAN KORRIKA</b>	Korrika 17rekin lotura duten albisteen jarraipena egitea.	- Komunikabideetan agertzen diren Korrika 17ren inguruko berriak jaso. - Berria Euskal Herriko mapa erraldoian (ikus 50. orr.) itsasi edo eskaneatu eta ikastetxeko blogera igo.	- Korrikak irauten duen bitartean.	- Tutoreak.

# IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

JARDUERA ZENBAKIA	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
<b>5.IPUINA</b>	Ahokotasunaren lanketa.	<p>Ariketa hau taldeka burutuko dute. Hartara, talde bakoitzak mailako gela bana izango du entzule.</p> <p>-Zenbait proposamen:</p> <p>a) Kidetze estrategiaren bidez, ipuina gidotzat hartu eta antzerki-emanaldi bat prestatuko dute ikasle gaztetxoentzat.</p> <p>b) Kidetze estrategiaren bidez, gaztetxoenen geletara joan eta ipuin irakurketa burutuko dute. Egiteko horretarako lagungarri suertatuko zaizkie koloreetako irudien laburpenak (ikus 18-19. orr.)</p>	- Saio bakarra. Ikasle helduek 30 minutu inguruko antzerkia presta dezakete.	-Hizkuntza arloko edota tailerreko irakasleak.
<b>6.BAIETZ ASMATU!</b>	Elkarlana bultzatzearekin batera, testuinguruaren arabera mezua asmatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Fotokopiak banatu.</li> <li>- Ahots gorako irakurketa burutu.</li> <li>- Taldeka mezua osatu.</li> <li>- Entzunaldia egin.</li> </ul>	- Saio bakarrean burutu beharreko lana.	- Arloko irakaslearekin. Hizkuntza arloko edota musika arloko irakaslea ere izan litezke.



# IRAKASLEARENTZAT ORIENTABIDEAK

JARDUERA ZENBAKIA	HELBURUAK	EKINTZAREN GARAPENA	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
<b>7. KORRIKA TXIKIA</b>	Korrika 17ren girotze-lana.	- Petoa jantzita kidetze estrategia erabiliko dugu. Horrela, ikasle zaharrenek umeen ardura izango dute.	- Korrika herritik pasatzen den egunean. - Ikastetxeko ordutegian.	- Tutorea.

*maitatu, ikasi, ari...*  
**ESKALAKA**

**12-18 URTE**  
**JARDUERAK**

# MAITATU, IKASI, ARI...EUSKALAKARI!

Euskal Herrian bizi dena euskal herritarra bada eta euskalduna euskaraz dakiena, nola deitu behar diogu euskara maitatu, ikasi eta erabili egiten duenari?

Nola, euskaraz bizi denari?

AEK-k eta Korrikak horiei guztiei izena ipini nahi diete Korrika 17rekin: euskara maite duena, ikasten eta erabiltzen duena, **EUSKALAKARIA**<sup>1</sup> da:

Euskalakaria da lehenengo hitza euskaraz egiten duen dendaria

Euskaraz sortzen duen artista.

Euskaraz diharduen lantegiko enpresaria.

Euskara sustatzen duen herritarra.

Euskararen aldeko neurriak hartzen dituen herri-ordezkaria.

Euskaraz lan egiten duen kazetaria, kirolaria, iturgina...

Euskalakaria da hitz egin ez baina ulertzen duenari euskaraz egiten diona.

Euskalakaria da ikasten ari dena, eta ikasten ari denarekin mintzo dena.

Euskalakaria da haurrari dakien beste euskara egiten dion gurasoa.

Euskalakaria alaia da.

Euskalakaria baikorra eta ekintzailea da.

Euskalakaria bizizalea da.

Euskalakaria naiz ni.

Euskalakaria haiz hi

Euskalakaria da bera.

Euskalakariak gu gara.

Euskalakaria zara zu.

Euskalakariak zuek zarete.

Euskalakariak haiek dira.

Korrika egiteko, grina eduki, oinez jakin eta abiatu egin behar da. Erortzeko beldurrik gabe. Euskaraz egiteko, maitatu, ikasi eta aritu egin behar da.

Hanka sartzeko beldurrik gabe.

Tipi-tapa, tipi-tapa... Euskal Herria euskalduntzeko herritar bakoitzaren egitekoa, garrantzia eta protagonismoa aldarrikatu nahi ditugu.

Tipi-tapa, tipi-tapa... Bakoitzaren abiapuntua zeinahi dela ere, herritar guztiak euskalakari izango diren Euskal Herria da Korrikaren azken helmuga. Euskal Herri euskalduna da AEKren azken helburua.

## Maitatu, ikasi, ari... euskalakari!

1\*.-Euskalakari. iz / izond.

1.- Euskara maitatzen, ikasten eta erabiltzen duena.

2.- Euskara erabiltzeko helburuz, euskara maitatuz, euskara ikasi eta hobetzeko ahaleginak egiten dituen. Horrelako urratsak ematen dituena.

# EUSKALAKARI kanta

---

Mingain zorroztuak ginen  
Zuri, hori, berde eta gorri ginen  
Barakaldon beterano ginen  
Arriskua ginen, erromeria ginen

Su iraultzaile ginen  
Enpresari eta sindikatu ginen  
Lesbiana, hetero, gay ginen  
Gehiegi izan ginen, nahikoa ez ginen

Euskalakari izango gara!  
**Pausoz pauso, gelditu barik**  
**Pausoz pauso, maitatu, ari...**  
**Pausoz pauso, euskalakari!**

Eserita zer itxoiten zenuen?  
Beldurtuta, nekatuta ote zinen...  
Trena pasa da ta zu begira hemen  
Ukabila ginen eta hitza ginen

Euskalakari izango gara!

# EUSKALAKARI BLOGA

## SARRERA

Oraingo jarduera honetan, gure ikastetxeetako gazteak blogari euskalakari bihurtu nahi genituzke. Blogari beren iritzi eta informazioak plazaratzeko aukera izango dutelako eta euskalakari hori guztia euskaraz egitea lehenesten dutelako. Blogean ikasle hauen ahotsek indar handia daukate eta sortu diren beste tresna berrien bidez gehiago heda daitezke.

Tresna honek gainera, sare barneko erabiltzaileen artean elkar ezagutzeko aukera ematen du, baita batzuk besteei erreferentziak egiteko aukera ere. Horrela, **Blogari isolatuetatik, Blogarien sare sozialera** pasatzen ahal da.

## ZEREGINA

Talde handiko eztabaida burutuko da. Horretarako, lehenik, gela taldeetan banatuko du arloko irakasleak, boskoteka. Talde txiki hauek honako galdera honi erantzuna ematen saiatuko dira: "nola jarri modan euskara?" Galderari buruzko iritziak talde txikian bildu ondoren, beren defentsa talde handira ekartzeko prestatu beharko dute.

Azkenik, irakasleak, taldeen arteko eztabaida bideratuko du, horretarako moderatzaile bihurtuz. Ezinbestekoa da eztabaida bidez grabatzea, hori izango baita gure blogera igoko dugun ekarpena.

## PROZEDURA

1. modua: egokiena ikastetxeak sortuta daukan bloga erabiltzea da. Ikastetxeko blogaren bitartez, maila bakoitzeko edo etapako erabiltzaile generikoa baliatuko dugu maila bakoitzeko emaitza bertara igotzeko. Egokiena maila bakoitzeko erabiltzaile bat izendatzea litzateke, beste inor lanez ez zamatzeko.

2. modua: ikastetxeak blogarik ez badu, honako helbide hauetara jo dezake: **<http://www.blogari.net>** ; **<http://www.blogak.com>** Bi hauetako edozein erabil liteke. Sare hauetatik ikastetxeko bloga sortzeko aukera izango dute. Komeni da ikastetxeko erabiltzaile generikoaz gain, mailakako beste bat izendatzea maila bakoitzak bere tokia izan dezan. Mailako erabiltzaile horrek arduratu beharko du mailako grabazioa igotzeaz. Bai modu batean edo bestean aritu, interesgarria litzateke zuen bloga Korrika 17ren **[www.korrika.org](http://www.korrika.org)** helbidearekin lotzea.

# EUSKALAKLIP

2011n burutuko den Korrika Kulturala 17ren barnean ikus-entzunezkoen sorkuntzari lekua egin nahi izan zaio. Egun, bereziki gazteek, ikus-entzunezko baliabideekiko duten hurbiltasuna kontuan edukita, bideo lehiaketa berezi eta berritzailea abiarazi nahi dugu, Euskalaklip, alegia.

Jarraian, oinarriak eta baldintzak aurki ditzakezue.

## **Bideoa sortzeko baldintzak:**

- Bideo-klip formatua (bideo laburrena) erabiltzea.
- Bideoek gehienez 3 minutuko iraupena izatea.
- Korrika 17ren leloa, Maitatu, ikasi, ari... euskalakari\*, gutxienez behin erabiltzea.

## **Baldintza teknikoak:**

- Bideoaren formatua: MP4 edo AVI.
- Gehienezko tamaina: 50 MB.

- Bidaltzerakoan, ZIP formatuan helaraziko da, hau da, konprimatuta; eta mezuaren goiburua Euskalaklip izango da.

- Bideoak [korrika17@gmail.com](mailto:korrika17@gmail.com) helbidera bidali beharko dira, apirilaren 16a baino lehen.

## **Sariketa:**

- Bozketa on line egingo da. Korrikaren web-gunean ([www.korrika.org](http://www.korrika.org)) emandako botoen bitartez, erabiltzaileek aukeratuko dute irabazlea, apirilaren 30a baino lehen. Erabiltzaileen aukeraketarekin batera, epaimahaia sortuko dugu azken hautaketa egiteko.

**MAITATU, IKASI , ARI.... EUSKALAKARI!!!**

# KORRIKA KOMUNIKABIDEETAN

## SARRERA

Jarduera honen helburua Korrika 17rekin lotura duten albisteen jarraipena egitea da. Euskal Herriko hainbat ibilbide ezagutzeaz gain, inguruetako hainbat pertsona ezagutzeko aukera izango dugu. Horrekin batera, kultura, arte edota kirol jardueren berri.

## PROZEDURAK

- Komunikabideetan agertzen diren Korrika 17ren inguruko berriak jaso.
- Berria Euskal Herriko mapa erraldoian (ikus 50. orr.) itsasi edo eskaneatu eta ikastetxeko blogera igo.

## BALIABIDEAK

Jarduera hau burutzeko garaian, euskarri digitalak zein paperezkoak erabiltzea gomendatzen da. Beste hizkuntza batzuetan argitaratutako mezuak ere balia litezke.

# IPUINA

Ikasturtea dezente hasita zegoen Markos Argiñeta baserrira iritsi zenerako. Aitona gaixorik zegoelako etorri zen Gomez familia baserrira bizitzera, amak uste baitzuen horrela aitona zaintzeko aukera izango zuela. Baina ez zen konturatua lanera joateko bidaia luze zuela eta etxetik goiz ateratzearekin batera, beranduago etxeratuko zela.

-Markos, aitona behar gaitu. Beraz, ni etorri artean zu izango zaitu zaindaria eta konpainia. Ados?- esan dio amak.

-Ados.- Markos irrika bizian zegoen aitonaarekin denbora pasatzeko, heroitzat baitzeukan. Izan ere, amak, txikitan, gauero oheratzerakoan, aitona Ferminen abenturak kontatzen zizkion. Gainera, hain zegoen urrun baserria herritik, zuzenean etxera etortzen zela bidean ilun egin baino lehen.

Azkenaldian, aitona petralduta bizi zen gaixotasunagatik. Geldirik egon behar zuen, baina ezin. Burua ere galtzen hasita zegoen, nahiz oso ongi gogoratu aspaldiko kontuak. Gauzak horrela, Markos aitona Ferminen itzal bihurtu zen.

-Aitona lagunduko al dizut?

-Bai, zera! Ongi pentsatuta, behar haut bai!

-Zertan?

-Sartu hadi kortan eta nik atetilak konpondu bitartean, hik ganbelak garbitu. Ea, har ezak ainar-erratza eta arrastelua eta hasi.-aitonak agintez.

-Aitona, ez dizut ulertzen.

-Ene, ene, egungo gazteria... Ez dakizue deus egiten, ezta mintzatzen ere. Begiratu ezak eta ikasi.

Biharamunean, ikastolatik etorritakoan hantxe topatu zuen Markosek aitona Fermin ukuiluko lanak egiten.

-Aitona lagunduko al dizut?

-Bai, zera! Ongi pentsatuta, behar haut bai!

-Zertan?

-Goazen kortara eta ikusiko dizkiagu urrixa eta garañoa hotzik ote dauden.

-Aitona, ez dizut ulertzen.

-Ene, ene, egungo gazteria... - aitonak ahopetik.

Egun batzuk pasatakoan, egoera errepikatu zen. Markos aitona atzetik zihoan lagundu asmoz. Aitonak behi eta ardiak jetzi zituen eta esnea edukitzeko ontziak behar zituen:

-Aitona lagunduko al dizut?

-Tira, ekar itzak goporra eta kaikua.

-Aitona, ez dizut ulertzen.

-Ene, ene, egungo gazteria... - aitonak ahopetik



# IPUINA

Gaua iritsi zen eta amak prestatutako jakiak mahairatu zituen aitona Markosek mahaia jarri bitartean. Bi-biak elkarrekin afaltzekoak ziren. Aukera polita zuen aitona bere abenturaren batengatik galdetzeko. Baina deus galdetu baino lehenago hasi zitzaion aitona ume zenean jostailuak zeintzuk zituen kontatzen.

-Ni ume nintzela, zibarekin aritzen ginen senideak eta bestela, tortoloxetan.

-Zerekin?

-Ene, ene, egungo gazteria... Non bizi haiz? Ez haiz hitanoz aritzen, ez dituk ukuiluko animaliak ezagutzen, ez katiluak zer diren. Kalekumeok ez duzue deus ikasten. Zer egiten duzue zuek eskolan? Nik zuen eskola izan banu, ministro izango nintzatekeen.

-Aitona zure jolasak ez ditut ezagutzen. Ni skatearekin aritzen naiz eta asteburuetan


lagunekin volleyballen jolasten dut. Badakizu sailkatuta gaudela?- Markosek ilusioz.

-Motel, motel, hirekin ez zegok garbi entenditzerik. Zer arraio esaten ari haiz? Moderno-moderno, baina kristaurik ez entenditzeko moduan!-haserre aitona.

-Ikusten aitona, ni ez naiz zugandik diferente. Nik ere badakit zuretzat arraro hitz egiten. Baina horregatik ez naiz zu baino gutxiago, bakoitza bere garaian sortu da. Zurea aberatsa da, baita nirea ere. Elkar ulertzeko moduak bilatzea da garrantzitsua, ozpindu gabe. Gainera, nik euskara zuri esker ikasi dut, zuk amari erakutsi zeniolako, baina euskarak zu eta ni, biak behar gaitu. Beraz, izan gaitezen EUSKALAKARI! -arrazoituz Markosek.

-To, harrapa ezak. Hi ere kastakoa haiz, biloba!









# BAIETZ ASMATU!

---

## SARRERA

Jarduera honen helburua hutsuneak betetzea da eta testuinguruaren arabera, mezua osatzea. Mezua Maider Legarretak sortutako kanta bati dagokiona da. Maider Legarreta 13 urteko ikasle bizkaitarra da eta Galdakaoko Elexalde Institutuan ikasten du. Kanta hau 11 urte zituenean sortu zuen.

## PROZEDURA

Lehenik, letraren irakurketa burutuko dugu. Ondoren, bikoteka hutsuneak betetzen saiatuko dira. Horretarako, testuinguruari erreparatu beharko diote. Azkenik, emaitzak ahots gora irakurri eta kantaren entzunaldia burutuko dute. Ea zorterik baden eta guztiak asmatzen duten.

## BALIABIDEAK

-Hurrengo orrialdearen fotokopiak ikasle guztientzat.  
-Entzunaldia egin ahal izateko cd irakurgailua eta audioa.

# BAIETZ ASMATU!

1)  
BI URTERIK BEHIN  
DATOR EUSKAL HERRIRA  
EUSKAL HERRI OSOARI  
EMATEKO -----  
EUSKARAZ HITZEGIN,  
EUSKARAZ KANTATUZ  
GUZTIAK KORRIKARA  
-----

2)  
PETOAK JANTZITA  
ZAPATILAK -----  
KORRIKARA JOAN  
ETA EZ AHAZTU  
DENOK ELKARREKIN  
DEZAGUN KANTATU  
HERRI HAU EGINGO DUGU  
-----

3)  
**EUSKARAZ KORRIKA,  
KORRIKA BIZITZA,  
BIZITZA HIZKUNTZA,  
----- HERRIA.  
EUSKAL HERRITIK GOAZEN  
DENOK KORRIKA,  
SALTOKA, KANTUKA  
GUZTIOK ----- (berriz)**

4)  
JENDE BERRI-BERRIA  
-----  
BESTEEI LEKUKOA  
PASATUZ  
HASIERA BADAUKA  
BAITA -----  
TARTEAN BATZUK  
JAUZTEN DIRA ZORURA.

5)  
ERORTZEN BAZARA  
-----  
FURGONETA ETORRIKO DA  
ETA ZU HARTU  
POZIK ETA ALAI  
BERRIZ -----  
ORAINXE JOANGO GARA  
GU HARA!

# SOLUZIOA

1)

BI URTERIK BEHIN  
DATOR EUSKAL HERRIRA  
EUSKAL HERRI OSOARI  
EMATEKO BIRA  
EUSKARAZ HITZEGIN,  
EUSKARAZ KANTATUZ  
GUZTIAK KORRIKARA  
GONBIDATUZ.

2)

PETOAK JANTZITA  
ZAPATILAK LOTU  
KORRIKARA JOAN  
ETA EZ AHAZTU  
DENOK ELKARREKIN  
DEZAGUN KANTATU  
HERRI HAU EGINGO DUGU  
EUSKARATU

3)

**EUSKARAZ KORRIKA,  
KORRIKA BIZITZA,  
BIZITZA HIZKUNTZA,  
HIZKUNTZA HERRIA.  
EUSKAL HERRITIK GOAZEN  
DENOK KORRIKA,  
SALTOKA, KANTUKA  
GUZTIOK IRRIKA. (berriz)**

4)

JENDE BERRI-BERRIA  
EZAGUTUZ  
BESTEEI LEKUKOA  
PASATUZ  
HASIERA BADAUKA  
BAITA HELMUGA  
TARTEAN BATZUK  
JAUZTEN DIRA ZORURA.

5)

ERORTZEN BAZARA  
LASAITU  
FURGONETA ETORRIKO DA  
ETA ZU HARTU  
POZIK ETA ALAI  
BERRIZ KORRIKARA  
ORAINTXE JOANGO GARA  
GU HARA!

6)

**EUSKARAZ KORRIKA,  
KORRIKA BIZITZA,  
BIZITZA HIZKUNTZA,  
HIZKUNTZA HERRIA.  
EUSKAL HERRITIK GOAZEN  
DENOK KORRIKA,  
SALTOKA, KANTUKA  
GUZTIOK IRRIKA. (berriz)**



# KORRIKA TXIKIA

---

## SARRERA

Korrika Txikia herritik Korrika 17 pasatzen den egunean burutzea litzateke egokiena. Herritik pasatuko ez balitz, edo desorduetan iritsiko balitz, ikastetxeko ordutegiaren barruan ospatzea litzateke aproposena. Jarduera hau, lagunartean eta giro alaietan pasatzekoa da, hortaz, ikasleen arteko kideak bultzatzea bidezkoa da. Alegia, jarduerako protagonistak ikastetxeko txikiak badira ere, gure nerabe eta gazteek ikasle txikiak laguntzaile bihurtzea.

## BALIABIDEAK

-Petoa soinean.  
-Megafonian Pirritx eta Porrotxen Korrika 15eko kanta, Korrika 17ko kantu ofiziala eta Maider Legarretak 6. jarduerarako sortutakoa.

## OHARRA

Ordutegitik kanpo pasako balitz, animatu ikastetxeko familia eta ikasleak Korrika ofizialean parte hartzea.

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
TREBIÑU	4/7/2011	17:29:60
ARGANTZUN	4/7/2011	22:42:60
TREBIÑU	4/7/2011	22:42:60
BAXAURI	4/7/2011	22:42:60
BERNEDO	4/7/2011	22:42:60
MARAÑON	4/8/2011	23:24:36
CABREDO	4/8/2011	23:40:12
GENEVILLA	4/8/2011	23:57:06
SANTA KURUTZE KANPEZU	4/8/2011	0:29:36
MAEZTU	4/8/2011	1:47:36
AZAZETA HERRIA	4/8/2011	2:27:15
AZAZETA MENDATEA	4/8/2011	2:46:06
EGILETA	4/8/2011	3:15:21

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
DULANTZI	4/8/2011	3:41:21
DALLO	4/8/2011	4:20:21
HEREDIA	4/8/2011	4:33:21
AGURAIN	4/8/2011	5:12:21
ORDOÑANA	4/8/2011	5:44:51
ZALDUONDO	4/8/2011	6:04:21
ARAIA	4/8/2011	6:30:21
ALBENIZ	4/8/2011	6:56:21
ILARDUIA	4/8/2011	7:02:51
EGINO	4/8/2011	7:15:51
MUGA	4/8/2011	7:35:21
ZIORDIA	4/8/2011	12:34:21
OLAZTI	4/8/2011	12:34:21

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
ALTSASU	4/8/2011	12:34:21
URDIAIN	4/8/2011	12:34:21
ITURMENDI	4/8/2011	12:34:21
BAKAIKU	4/8/2011	12:34:21
ETXARRI	4/8/2011	12:34:21
ARBIZU	4/8/2011	12:34:21
LAKUNTZA	4/8/2011	12:34:21
ARRUAZU	4/8/2011	12:34:21
UHARTE	4/8/2011	12:34:21
IRAÑETA	4/8/2011	12:34:21
IHABAR	4/8/2011	12:34:21
HIRIBERRI	4/8/2011	12:34:21
SATRUSTEGI	4/8/2011	12:34:21

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
ZUHATZU	4/8/2011	12:34:21
EKAI	4/8/2011	12:34:21
ETXARREN	4/8/2011	12:34:21
ETXARREN	4/8/2011	12:34:21
ETXEBERRI	4/8/2011	12:34:21
IRURTZUN	4/8/2011	18:20:09
ODERITZ	4/8/2011	18:20:09
ASTITZ	4/8/2011	18:20:09
LEKUNBERRI	4/8/2011	18:20:09
BERUETE	4/8/2011	18:20:09
JAUNTSARATS	4/8/2011	18:20:09
GARTZARON	4/8/2011	18:20:09
ERBITI	4/8/2011	18:20:09

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
ILARREGI	4/8/2011	18:20:09
LARRAINTZAR	4/8/2011	18:20:09
LIZASO	4/8/2011	18:20:09
GELBENTZU	4/8/2011	18:20:09
AROTEGI	4/8/2011	18:20:09
EGUARATS	4/8/2011	18:20:09
MARKOLAIN	4/8/2011	18:20:09
BERRIOZAR	4/8/2011	19:12:09
IRUÑEA	4/9/2011	6:02:09
BARAÑAIN	4/9/2011	6:02:09
ZIZUR NAGUSIA	4/9/2011	6:02:09
ZIZUR TXIKIA	4/9/2011	6:02:09
NOAIN	4/9/2011	6:02:09

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
BERIAIN	4/9/2011	6:02:09
SUBITZA	4/9/2011	6:02:09
ENERITZ	4/9/2011	6:02:09
GARES	4/9/2011	6:02:09
MENDIGORRIA	4/9/2011	6:02:09
LARRAGA	4/9/2011	8:02:24
LERIN	4/9/2011	8:02:24
ALLO	4/9/2011	9:53:33
LIZARRA	4/9/2011	11:18:03
LOS ARCOS	4/9/2011	13:34:33
ELIZAGORRIA	4/9/2011	15:25:03
MENDAVIA	4/9/2011	15:25:03
LODOSA	4/9/2011	16:43:03

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
SARTAGUDA	4/9/2011	17:28:33
ANDOSILLA	4/9/2011	18:40:03
SAN ADRIAN	4/9/2011	19:19:03
AZKOIEN	4/9/2011	20:50:03
MARTZILLA	4/9/2011	22:26:15
ALESBES	4/9/2011	22:26:15
CADREITA	4/10/2011	6:13:36
CINTRUENIGO	4/10/2011	6:13:36
TUTERA	4/10/2011	6:13:36
ARGUEDAS	4/10/2011	6:13:36
VALTIERRA	4/10/2011	6:13:36
CAPARROSO	4/10/2011	11:13:15
MURILLO EL CUENDE	4/10/2011	11:13:15



# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
PITILLAS	4/10/2011	11:13:15
BEIRE	4/10/2011	11:13:15
ERRIBERRI	4/10/2011	11:13:15
TAFALLA	4/10/2011	11:13:15
LERGA	4/10/2011	19:56:30
OIBAR	4/10/2011	19:56:30
ZANGOZA	4/10/2011	19:56:30
LEDEA	4/10/2011	19:56:30
JUDASEN BENTA	4/10/2011	19:56:30
IRUNBERRI	4/10/2011	19:56:30
NABASKOIZE	4/10/2011	19:56:30
USTAIZE	4/11/2011	23:50:30
GORZA	4/11/2011	23:50:30

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
SARTZE	4/11/2011	23:50:30
ESPARTZA ZARAITZU	4/11/2011	23:50:30
ESKAROTZE	4/11/2011	23:50:30
OTSAGABIA	4/11/2011	23:50:30
JAUURIETA	4/11/2011	23:50:30
ABAURREGAINA	4/11/2011	5:42:09
GARAIOA	4/11/2011	5:42:09
GARRALDA	4/11/2011	5:42:09
AURITZ	4/11/2011	5:42:09
AURIZPERRI	4/11/2011	5:42:09
GERENDAIN	4/11/2011	5:42:09
LINTZOAIN	4/11/2011	5:42:09
ERRO	4/11/2011	5:42:09

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
ZUBIRI	4/11/2011	5:42:09
URTASUN	4/11/2011	13:17:09
EUGI	4/11/2011	13:17:09
IRURITA	4/11/2011	13:17:09
ELIZONDO	4/11/2011	13:17:09
ERRATZU	4/11/2011	13:17:09
ELIZONDO	4/11/2011	13:17:09
ARRAIOZ	4/11/2011	13:17:09
MUGAIRI	4/11/2011	13:17:09
NARBARTE	4/11/2011	13:17:09
DONEZTEBE	4/11/2011	17:04:39
SUNBILLA	4/11/2011	17:04:39
LESAKA	4/11/2011	17:04:39

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
BERA	4/11/2011	17:04:39
MUGA	4/11/2011	17:04:39
SARA	4/11/2011	17:50:09
SENPERE	4/11/2011	18:35:39
ARBONA	4/11/2011	19:40:39
MIARRITZE	4/11/2011	20:58:39
BAIONA	4/11/2011	22:42:39
HAZPARNE	4/12/2011	2:10:39
DONAPALEU	4/12/2011	5:38:39
MAULE	4/12/2011	8:34:09
LARZABALE	4/12/2011	11:10:09
GARAZI	4/12/2011	12:54:09
ITSASU	4/12/2011	16:48:09

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
UZTARITZE	4/12/2011	18:06:09
SENPERE	4/12/2011	19:37:09
AZKAINE	4/12/2011	20:29:09
DONIBANE	4/12/2011	21:27:39
URRUÑA	4/12/2011	22:06:39
HENDAIA	4/13/2011	23:11:39
IRUN	4/13/2011	1:02:09
HONDARRIBIA	4/13/2011	1:02:09
OIARTZUN	4/13/2011	1:02:09
ERRETERIA	4/13/2011	3:58:34
LEZO	4/13/2011	3:58:34
PASAI DONIBANE	4/13/2011	3:58:34
PASAI SANPEDRO	4/13/2011	3:58:34

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
BIDEBIETA	4/13/2011	3:58:34
ESKALERILLAS	4/13/2011	3:58:34
PASAI ANTXO	4/13/2011	3:58:34
ORERETA	4/13/2011	3:58:34
OIARTZUN	4/13/2011	3:58:34
PERURENA	4/13/2011	5:32:49
ASTIGARRAGA	4/13/2011	5:32:49
HERNANI	4/13/2011	5:32:49
URNIETA	4/13/2011	5:32:49
ANDOAIN	4/13/2011	7:27:52
ADUNA	4/13/2011	7:27:52
VILLABONA	4/13/2011	7:27:52
IRURA	4/13/2011	7:27:52

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
HERNIALDE	4/13/2011	7:27:52
TOLOSA	4/13/2011	9:11:52
IKAZTEGIETA	4/13/2011	9:11:52
LEGORRETA	4/13/2011	14:49:52
ITSASONDO	4/13/2011	14:49:52
ARAMA	4/13/2011	14:49:52
ORDIZIA	4/13/2011	14:49:52
BEASAIN	4/13/2011	14:49:52
LAZKAO	4/13/2011	14:49:52
OLABERRIA	4/13/2011	14:49:52
IDIAZABAL	4/13/2011	14:49:52
SEGURA	4/13/2011	14:49:52
ZERAIN	4/13/2011	14:49:52

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
MUTILOA	4/13/2011	14:49:52
ORMAIZTEGI	4/13/2011	14:49:52
BEASAIN (SALBATORE)	4/13/2011	14:49:52
MANDUBIA	4/13/2011	14:49:52
MATXINBENTA	4/13/2011	18:53:37
NUARBE	4/13/2011	18:53:37
URRESTILLA	4/13/2011	18:53:37
AZPEITIA	4/13/2011	18:53:37
ZESTOA	4/13/2011	18:53:37
AZPEITIA	4/13/2011	18:53:37
AZKOITIA	4/13/2011	18:53:37
AZKARATE	4/13/2011	18:53:37
ELGOIBAR	4/13/2011	20:05:07



# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
SATURIXO	4/13/2011	20:05:07
SORALUZE	4/13/2011	20:46:04
MALTZAGA	4/13/2011	20:46:04
EIBAR	4/13/2011	20:46:04
MARKINA	4/13/2011	22:43:04
ERMUA	4/14/2011	0:20:34
MALLABIA	4/14/2011	1:03:28
BERRIZ	4/14/2011	1:03:28
IURRETA	4/14/2011	4:57:28
DURANGO	4/14/2011	4:57:28
ABADIÑO	4/14/2011	4:57:28
APATAMONASTERIO	4/14/2011	4:57:28
ELORRIO	4/14/2011	4:57:28

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
MUGA	4/14/2011	4:57:28
ELGETA	4/14/2011	6:34:58
ANGIOZAR	4/14/2011	6:34:58
BERGARA	4/14/2011	6:34:58
ANTZUOLA	4/14/2011	7:20:28
DESKARGA	4/14/2011	7:20:28
URRETXU	4/14/2011	9:13:34
ZUMARRAGA	4/14/2011	9:13:34
LEGAZPI	4/14/2011	9:13:34
UDANA	4/14/2011	9:13:34
OÑATI	4/14/2011	14:32:04
SAN PRUDENTZIO	4/14/2011	14:32:04
ARRASATE	4/14/2011	14:32:04

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
ARAMAIO	4/14/2011	14:32:04
ARETXABALETA	4/14/2011	14:32:04
ESKORIATZA	4/14/2011	14:32:04
LEINTZ GATZAGA	4/14/2011	14:32:04
MUGA	4/14/2011	14:32:04
LEGUTIANO	4/14/2011	15:17:34
MIÑAO	4/14/2011	16:22:34
GAMARRA	4/14/2011	17:02:52
GASTEIZ	4/14/2011	17:15:52
SANSOMENDI	4/14/2011	21:35:52
MARGARITA	4/14/2011	21:55:22
LANGRAITZ	4/15/2011	23:23:07
SUBIJANA - MORILLAS	4/15/2011	0:18:22

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
IZARRA	4/15/2011	2:04:58
MURGIA	4/15/2011	2:53:43
IZARRA	4/15/2011	3:42:28
URDUÑA	4/15/2011	5:15:25
AMURRIO	4/15/2011	6:00:55
AIARA	4/15/2011	6:33:25
MUGA	4/15/2011	7:31:55
ARTZINIEGA	4/15/2011	7:31:55
MUGA	4/15/2011	7:50:46
SODUPE	4/15/2011	12:30:16
ZALLA	4/15/2011	12:30:16
BALMASEDA	4/15/2011	12:30:16
SOPUERTA	4/15/2011	12:30:16

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
MUSKIZ	4/15/2011	12:30:16
ABANTO	4/15/2011	13:15:07
ORTUELLA	4/15/2011	13:56:43
TRAPAGA	4/15/2011	14:27:16
PORTUGALETE	4/15/2011	15:04:58
SANTURTZI	4/15/2011	16:10:37
PORTUGALETE	4/15/2011	16:10:37
SESTAO	4/15/2011	16:10:37
BARAKALDO	4/15/2011	16:39:52
ZORROTZA	4/15/2011	17:31:52
BILBO	4/15/2011	17:31:52
OTXARKOAGA	4/15/2011	21:19:22
ETXEBARRI	4/15/2011	21:19:22

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
GALDAKAO	4/16/2011	0:40:52
BASAURI	4/16/2011	0:40:52
ARRIGORRIAGA	4/16/2011	0:40:52
UGAO	4/16/2011	0:40:52
MUGA	4/16/2011	0:40:52
ARETA	4/16/2011	1:30:16
LAUDIO	4/16/2011	1:30:16
ARETA	4/16/2011	1:30:16
MUGA	4/16/2011	1:30:16
OROZKO	4/16/2011	2:02:46
BIKOTX.GANE	4/16/2011	3:04:31
ARTEAGA	4/16/2011	4:48:31
IGORRE	4/16/2011	4:48:31

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
ZORNOTZA	4/16/2011	4:48:31
ERLETXE	4/16/2011	5:47:00
ZAMUDIO	4/16/2011	8:55:31
ASUA	4/16/2011	8:55:31
ERANDIO	4/16/2011	8:55:31
AREETA	4/16/2011	13:55:49
ALGORTA	4/16/2011	13:55:49
GETXO	4/16/2011	13:55:49
SOPELA	4/16/2011	13:55:49
PLENTZIA	4/16/2011	13:55:49
MUNGIA	4/16/2011	16:44:49
BAKIO	4/16/2011	16:44:49
BERMEO	4/16/2011	22:22:010

# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
BUSTURIA	4/16/2011	22:22:010
GERNIKA	4/16/2011	22:22:010
ERRETERIA	4/16/2011	22:22:010
NABARNIZ	4/16/2011	22:22:010
GABIKA	4/16/2011	22:22:010
EREÑO	4/16/2011	22:22:010
SOLARTE GALLETE	4/16/2011	22:22:010
LEKEITIO	4/17/2011	1:17:40
GIZABURUAGA	4/17/2011	1:17:40
AULESTI	4/17/2011	1:17:40
MARKINA	4/17/2011	1:17:40
BERRIATUA	4/17/2011	1:17:40
ONDARROA	4/17/2011	1:17:40



# IBILBIDEA

HERRIA	DATA	ORDUA
MUGA	4/17/2011	1:17:40
MUTRIKU	4/17/2011	2:14:52
DEBA	4/17/2011	3:30:16
ARROA BEHEKOA	4/17/2011	5:14:16
ZUMAIA	4/17/2011	5:14:16
GETARIA	4/17/2011	5:50:04
ZARAUTZ	4/17/2011	6:30:22
ORIO	4/17/2011	7:17:49
AGINAGA	4/17/2011	8:29:19
USURBIL	4/17/2011	8:29:19
LASARTE	4/17/2011	9:53:49
DONOSTIA	4/17/2011	10:13:19



